



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018
SAN JUAN / DONIBANE
ERMITAGAÑA
MENDEBALDEA

Fecha / Data:	2018/03/06
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Jose Maria Huarte Ikastetxea
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Esther Cremaes
Participantes / Parte-hartzaileak:	16 gizon eta 11 emakume
Otros / Bertze batzuk:	
Moderadora / Moderatzailea:	Partaidetzako teknikaria: Ana Etxaleku SDC: Maitane Urmeneta, Leire Pimoulier, Gabriel de Diego, Gonzalo Goñi

Apertura / Hasiera

Ana Etxaleku Herriarren Partaidetzako teknikariak bertaratuei ongi etorria emanez abiarazi du urteko lehenbiziko auzo-eztabaidagunea, eta dinamika berria aurkeztu du. Lehenik eta behin, Esther Cremaes zinegotziak auzoko egoera aurkeztuko du, eta, ondoren, tarte bat utziko zaie auzoko kolektiboari azaltzeko zer egiten ari diren; lehen atala amaitzeko, eskaerak eta galderak egiteko tarte bat utziko da. Lehen atal hori amaitu ondoren, hurrengo atalera pasatuko da: talde txikitik landuko dira auzoen ongizatea hobetzeko dauden proposamenak.

El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Esther Cremaesek auzoen egoera hobetzeko egin diren zenbait neurriren berri eman die bertaratuei. Horien artean, hauek azpimarratu ditu:

- Trafiko- eta istripu-arazoak direla-eta Ermitagañan zegoen egoeraren ondorioz, neurriak hartu, eta ekintza zehatzak egin dira, batez ere zebrabideetan.
- Duela sei hilabete, HMJP abian jarri zen, eta positiboa izan da herriarren erantzuna; ongi hartu dute, batez ere, villavesen 4. eta 9. lineak Alde Zaharrera hurbiltzea eta Basotxo kalea oinezkoentzako bihurtzea.
- Auzotarrentzako lokalei dagokienez, udala auzoaren beharretara egokitutako lokalak bilatzen ari da, auzotarrei eskaintzeko.



- Udala hiri-baratzak sustatzen ari da, eta, bertzeak bertze, Donibane eta Mendebaldea auzoetan jarri da martxan ekimen hau, mundu naturala eta ekologikoa hirietara hurbiltzeko eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko, espazio horietan adineko pertsonak gazteei irakasten ahal baitiete.
- Takonera parkearen iparraldean berdeguneak, jolaslekuak eta espazio estaliak jarriko dituzte, baita haurrentzako esparru ludikoak ere.
- Antoniuttiko patinajeko pista eta skate park-aren ingurua konponduko dira; izan ere, hiriko espazio adierazgarri bat izan arren, 20 urtez ez da konpondu, eta zenbait kalte ditu.
- Herritarrak, aspaldidanik, igogailu bat ari dira eskatzen trinitariosen aldea Donibanerekin lotzeko, eta udala aztertzen ari da nola lot daitezkeen bi puntu horiek ekonomikoki bideragarria den modu batean.
- Azkenik, erran du urteko bigarren zatian inbertsio ekonomikoki jasangarriak baliatuz auzoak hobetzeko zenbait ekimen egingo direla Auzoen Planaren bitartez.

El barrio informa / Auzoak informatzen du

Esther Cremaesen ondoren, Ermitaldeari eman zaio hitza: Mendebaldea eta Ermitagaña auzoetako kolektibo sortu berri bat da Ermitaldea.

Mikelek eta Maitek kolektiboa aurkeztu dute, eta erran dute zer jarduera egin duten orain arte, zer jarduera dituzten etorkizunean egiteko eta zer printzipiok gidatzen duten taldea.

Azaldu dute auzoa biziberritzeko beharraren ondorioz sortu zela taldea. Prozesu partizipatiboa da, belaunaldi artekoa eta berdintasunean oinarritua; erabakiak batzarrean hartzen dira, eta helburu nagusia du kulturaren alde lan egitea. Horregatik, Olentzero izan zen lehenbiziko jarduera, eta hagitz harrera ona egin zioten auzotarrek. Lehen esperientzia pilotu haren ondoren, taldea animatu egin zen, eta astean behin hasi zen elkarten; eta horrek jarduera berriak proposatzea ekarri zuen. Gaur egun, bi proiektu dituzte esku artean; lehenbizi, «Zuhaitzaren Eguna» antolatzea: martxoaren 24an izango da, eta hainbat jarduera egingo dituzte: konposta egiten parte hartzea, zuhaitzak landatzea eta bazkari komunitarioa, bertzeak bertze. Bertetik, Estherrek lehen aipatu duen Baratz Komunitarioa kudeatzen ari dira. Jendea animatzen dute baratza abian jartzeko bileretan parte hartzera. Lehenengo bilera otsailaren 27an izan zen, eta hagitz harrera ona egin zioten bertaratu zirenek; hurrengoa martxoaren 12rako dago aurreikusita, eta, horretan, proiektua idazten hasiko da talde eragilea.

El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

Nork / quién propone	Tema/Gaia
Enrique Erranz	Gogorarazi du aurreko eztabaidaguneetan eskatutakoa: Zebrabideetan esku hartzea; hori 15 egunetan konpondu zen.



	<p>Jose Maria Iribarreneko kirol-eremua egokitzea.</p>
	<p>Eskatu du arrapala egitea eta heskaiak landatzea oinezkoen pasealekuan.</p>
Patxi, Donibaneko auzotarra	<p>Eskatu du Martin Azpilicueta oinezkoentzako bihurtzea, aparkalekua baita, eta hori pena baita.</p> <p>Bilera bat izan zuten hurbiltasuneko poliziarekin; haiek gomendatu zieten udalari egiteko zegokion eskaera, baina ez dute haren erantzunik jaso.</p> <p>Hirigunea atsegin egiteko plana hagitz ongi dago, baina, haren ondorioz, goizetan biziki areagotu da zirkulazioa Larraina aldapan, eta ez dago aparkatzeko lekurik Donibanen. Horrez gain, uste du gaizki aukeratuta dagoela alde urdina Donibanek Mendebaldearekin eta Ermitagañarekin muga egiten duen eremuan. Sektoreak berrantolatzea proposatu du.</p>
Cristina Dufur, Virgen del Puyko auzotarra	<p>Esther Cremaesi eta Xabi Erreari deitu zien jakinarazteko taberna batean gizabidearen kontrako jokabide anitz gertatzen direla, eta esku-hartze bat eskatzeko tabernak sortutako arazoei amaiera emateko.</p>
Jesus, Donibaneko auzotarra	<p>Minduta dago, bere ustez agintariak permisibitate handiegia baitute lotu gabe dabilzan txakurrekin. Bestalde, erran du gaizki diseinatuta eta gaizki mugatuta daudela aisialdirako eremu batzuk.</p>
Xabier	<p>Zerabidea jarri behar da Sancho Azkarraren eta Iratxeko Monasterioaren kalearen artean, buelta handia eman behar baita bi puntu horien artean gurutzatzeko.</p>
Aitziber, Mendebaldeko auzotarra	<p>Villavesako 12. eta 4. lineak ongi daude zentrorra hurbiltzeko, baina itzultzeko, lehen, geraleku komunak zituzten, eta gaur egun puntu desberdinetan daude, eta horregatik, denbora luzeago behar dute itzultzeko villavesa hartzeko.</p>
Auzotarra (1)	<p>Iruñeko maskotei buruzko datuak eskaini ditu: familien % 10ek, gutxi gorabehera, txakurra dute, eta gizabidezko jokabidea dute gehienek. Lehen txakurrak aipatu dituen bizilagunari erantzun dio.</p>



Javier, Donibaneko auzotarra	Azueloko Monasterioaren plazak zenbait kalte ditu, eta erabilera publikoko plaza pribatua izan arren, ez daki zeinek duen arazoa konpontzeko erantzukizuna.
Pilar, Barañaingo auzotarra	Oinezkoen pasabidea eskatu du Miluce kalean, Carrefourren atzealdea Barañainekin lotzeko, eta botoidun bi semaforo jartzeko: bata, CUN eta Erizaintzako Fakultatearen artean, eta, bertzea, Albret Hotelaren ondoan.
Auzotarra (2)	Proposatu du foroaren kartela proiektatzen den tokian, auzoko mapa bat proiektatzea; horrela anitzez hobeki azaltzen ahal izango dira auzoko eskakizunak.
Jose Luis, Ermitagañako auzotarra	Vistabellan txakurrak lotu gabe ibil daitezke, baina noraino?
Rubén, Dendari Izar Eskaut taldekoa	Egoera aprobetxatu du jakinarazteko Eskautek leku bat dutela jada GEZKn, eta taldea hazi egin dela. 75 familiari arreta ematetik, 100 familiari ematera pasatu dira, eta animatzen dute parte hartzea handitzera. Talde berria sortu dute 2009-2010 urteetan jaiotako gazteentzat.
Mikel, Mendebaldeko auzotarra	Benjamín de Tudela 42an arazo bat dute, prostituzioko pisu bat baitago atari horretan, horrek dakartzan arazo guztiekin.

Grupos de Trabajo / Lantaldeak

Esther Cremaes zinegotziak eta Ana Etxaleku Herritarren Partaidetzako teknikariak bi eztabaida-taldetan banatzera gonbidatu dituzte bertaratuak, horietako bakoitza eremu zehatz bati lotuta: Ermitagaña eta Mendebaldea, alde batetik, eta Donibane, bertetik. Herritarren Partaidetzako Dinamizatze Zerbitzuak moderatu ditu bi lan-eremuak, eta egitura honi jarraituz garatu dira:

- Esparruaren eta haren ezaugarrien eta helburuen **aurkezpen** orokorra.
- **2017an egindako auzo-eztabaidaguneetan herritarrek adierazitako auzoko beharrak eta proposamen** nagusiak irakurtzea. Horiek “jasangarritasunaren hirukia” delakoaren hiru esparru egituratzaile handitan banatzen dira: gizartea (komunitate-bizitza, pertsonen arteko harremanak, asoziazionismoa, etab.), ingurumena (hirigintza arloko hobekuntzak, espazio fisikoan eragina duten proposamenak, mugikortasuna, etab.) eta ekonomia (merkataritza, diru-laguntzak, merkataritza suspertzea, etab.)



- Haien baliozkotasunaz **hausnartzeko** tarte bat, eta banaka proposamen berriak gehitzeko, post-it bidez.
- **Taldekako eztabaida.**
- **Lehenestea.** Parte-hartzaile bakoitzari hiru gomets esleitu zaizkio, boto moduan, hasteko edo egiteko garrantzi handiena duten beharrei edo proposamenei jartzeko.
- **Itzultzea eta amaitzea.**

Aipatu behar da, halaber, eremu horietako mapak ere jarri direla ikusizko eta informazioko laguntza gisa.



Maitane Urmenetak moderatu du Ermitagañako eta Mendebaldeko eremuen eztabaidagunea; zazpi lagunek osatu dute: bortz gizonek eta bi emakumek.

Gizarte arloan, Ermitaldea taldea *agertzea* eta egotea hagitz ongi baloratu da, eta diru-laguntza publikoak ematea eskatu da haien auzo-ekitaldi eta -proiektuak hedatzeko eta egiteko, hala nola “Zuhaitzaren Eguna”. Horrez gain, eztabaidatu da ea komenigarria den hutsik edo erabili gabe dauden udalaren lokalen zentsua egitea eta haien elkarte-sarearen esku jartzea, eta aipatu da sortu behar direla auzoko gazteei erakargarriak zaizkien espazioak eta ekimenak. Aipatu da auzotarrek ez dakitela zer egin den Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioetan, eta bi proposamen berri jarri dira mahai gainean, eta biek hagitz ongi hartu dituzte parte-hartzaileek: lehenbizi, ikuspegi komunitario batetik, hurbildu beharra dago Bartolomé de Carranza kalean bizi diren ijitoengana, eta, bigarrenik, azpimarratu da eremuko baliabide soziokulturalak irekita egon behar dutela auzoko bizilagunentzat, eta horiek aprobetxatu behar dituztela eta berenak sentitu, han bideratzeko beren programak eta jarduerak.

Ingurumen arloari dagokionez, gehien aipatu diren bi kontuak izan dira bidegorriak hobetu behar direla eta konposta egiteko eremuak ezarri behar direla auzoetako bakoitzean. Bigarren kontuari dagokionez, aipatu da praktika horrek Sanduzelain izan duen arrakasta.

Azkenik, ekonomia arloan, nabarmentzekoa da tokiko merkataritza sustatzeko deia; halaber, gazteentzako etxebizitzaren gaia plazaratu da, eta hitz egin da nolako zailtasunak dituzten gazteek auzoan beren lehen etxebizitza lortzeko.



Ondoko taulan daude parte-hartzaileek egindako oharrak, zenbat lehenespen-boto lortu dituzten eta udalaren zer alorrek duen behar edo proposamen horren inguruko eskumena.

ERMITAGAÑA – MENDEBALDEA / AUZO-EZTABAIDAGUNEAREN BIGARREN BLOKEA	
GIZARTEA	
Zer	Lehenespena
Auzoko gazteak eta etxabeetakoak integratzea, eta haientzat erakargarriak diren jarduerak antolatzea	a
Liburutegia Civivox moduan: auzotarren jarduerak, filmoteka, kontserbatorioa... Espazio horiek auzotarrei irekitzea.	aaaa
Biztanle ijitoengana hurbiltzea (Bartolomé de Carranza kalea).	aaa
Auzoan hutsik edo erabili gabe dauden espazioak aukeratu kolektiboek okupatu ditzaten (lokalen zentsua)	aa
Ermitaldea taldeari laguntzea eta hedatzea	
GEZKren lokalak handitzea, eta ezagutzera ematea zer egiten den han	
Biziberritzea Bartolome de Carranza eta Arcadio Maria Larronaren arteko eremu baztertua.	
Auzo-kontseiluak sortzea	
Kudeaketa komunitarioko lokalak: Bartolome de Carranzako GEZK eraberritzea	
Ikastetxeak auzoaren bizitzan integratzea	
Ermitaldeari laguntzea	aa
INGURUMENA	
Zer	Lehenespena



Bizikleta-aparkalekua GEZKn	
Konposta egiteko eremu bat auzo bakoitzean	a
Botoia jartzea Ermitagaña kaleko semaforoan (Albret aldean)	
Bidegorria eta haren loturak hobetzea, arazorik ez egoteko oinezkoen eta txirrindularien artean.	aa
EKONOMIKOA	
Zer	Lehenespena
Tokiko merkataritza sustatzea.	a
Etxebizitza eskuragarriak gazteentzat	a
Elkarteek bultzatutako auzotarren ekimenei ("Zuhaitzaren Eguna" adibidez) laguntza ekonomikoa ematea, horrela erakargarriagoak izan daitezzen.	

Donibaneko auzotarrekin egindako lana, berriz, Leire Pimoulierrek eta Gonzalo Goñik moderatu dute, eta bortz lagunek parte hartu dute: lau gizonek eta emakume batek. Hasteko, erreparasatu dituzte auzoko aurreko eztabaidaguneetan planteatutako eskakizun nagusiak, eta formatu eta lan-espazio berriak aurkeztu dituzte.

Taldean erran dute aldarrikapen horiek guztiek beren horretan jarraitzen dutela, eta aldi berean lan egin eta eztabaidatu dute bertze batzuk gehitzeko. Bereziki azpimarratu dute Martín Azpilcueta kalea oinezkoentzako bihurtzea, eta taldean argudiatu da merkatarien elkartea ere horren alde dagoela.

Tarte batez aipatu dute auzoko zati batzuetan bidegorria falta dela eta ezarri beharko litzatekeela, eta gero eztabaida-gaia izan da gazteek hiriaren kanpoaldera migratzen dutela emantzipatzeko orduan. Horrek guztiak lotura du auzoan etxebizitzek duten prezio handiarekin, eta, horren ondorioz, gero eta jende gazte eta aktibo gutxiago geratzen ari da eremuan. Ia denak bat etorri dira horretan.

Horren ondoren, taldeko kide batek berriz plazaratu du txakurren gaia, eta adierazi du auzotar anitzek ateratzen dituztela beren maskotak lotu gabe edo muturrekorik gabe, baina gainerako kideek ez dute egin haren eskaeraren alde. Gero, zenbait proposamen aurkeztu dituzte, hala nola eremu urdinaren ordutegia aldatzea, eskoletan sartzeko eta ateratzeko ordutegietan sortzen diren ibilgailuen bigarren ilaren kudeaketa, ikastetxeetako patioak irekita dauden orduak (kirola egiteko aprobeztatzeko), baina proposamenez ez dute arrakastarik izan taldean.

Amaitzeko, berriz heldu zaio hiru auzoetan gizarte-etxerik ez egotearen arazoari, aurreko auzo-eztabaidaguneetatik datorren aldarrikapena, eta kokapen posible bat proposatu ere egin da: La Vaguada parkea, eztabaidagune honetan parte hartu duten hiru auzoen tarteko puntua.



Ondoko taulan azalduta daude jaso diren proposamenak, zenbat lehenespen-boto lortu dituzten eta udalaren zer alorrek duen horien inguruko eskumena.

DONIBANE / AUZO-EZTABAIDAGUNEAREN BIGARREN BLOKEA	
GIZARTEA	
Zer	Lehenespena
Isunak jartzea kale-zurruteko eremuetan-eta zaborrak botatzeagatik.	
Udal-ikastetxeetako patioak irekitzeko ordutegia, kirol-jokalekuak erabiltzeko.	
Gizarte-etxe bat behar da. Proposatu da La Vaguada pasealekuaren bukaera aldean kokatzea.	aaaa
Lotu gabe eta muturrekorik gabe dabilzan txakurrak kontrolatzea.	aa
Auzoak jende gaztea galtzea, hiriaren kanpoaldera joaten baitira.	aaaa
INGURUMENA	
Zer	Lehenespena
Eremu urdinaren ordutegia handitzea edo aldatzea.	
Puntako orduetan ikastetxeen ateen ondoko ibilgailuen bigarren lerroak kudeatzea.	
Seinaleztapena falta da bidegorrian.	a
Donibane Kirol Elkartera joateko zubiaren baranda.	
Fiteroko Monasterioaren kalearen amaierako ikuspena	
Martin Azpilcueta kalea oinezkoentzako bihurtzea.	aa
Larunbat arratsaldeetan lanik ez egitea garbiketamakinak.	
EKONOMIKOA	
Zer	Lehenespena